ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

# Ohar informatiboa:

## Lur-azpikoen ordez lur gaineko hondakin edukiontziak jartzea

Ohar honen bidez herritar guztiei jakinarazi nahi diegu datorren astetik aurrera Tolosaldeako Mankomunitateak lur-azpiko edukiontzien ordez lur gainekoak jarriko dituela.

Urtarrilaren 17an egindako herri bileran azaldu genuen eran, aldaketa hau egin ezean Udalak Mankomunitateari egin beharko zion ekarpena nabarmen igoko litzateke.

Aldaketa dela eta, bilera horretan hainbat herritarrek agertutako desadostasunen aurrean Udalak bi eskaera egin zituen:

- aldaketa egiteko kosterik gabeko luzamendu bat eta orain bukatzen den urte erdiko epea onartu ziguten,
- lur azaleko edukiontzi berriak jartzea lur-azpikoentzat lehendik dagoen azpiegitura desegin gabe eta, horrela egingo da, edukiontzi berriak lehengoen plataformaren gainean jarriko dira eta kendu behar zaien "buzoia" Udaletxearen esku geratuko da.

Alkizan, 2014ko ekainaren 26an

ALKATEA

ALKIZAKO UDALA (Gipuzkoa) ALKATETZA

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 *Fax:943 69 01 56 *e-mail: alkiza@udal.gipuzkoa.net *web: www.alkiza.net